

# Beti moralaz kalakan

• JOXE AZURMENDI •

(FILOSOFOA)

**P**olitikoak beti moralaz kalakan. Hemen bakarrik gertatzen al da hori?, galdetzen du Joxe Marik. Gertatu, hemen bakarrik ez da gertatzen. Baina hemen biolentziak bereziki gordin jartzen du ebidentzian gizarterik eza, elkarbizitzaren oinarri moral falta, errealitate falta, Francoren ondoko erakundetze guztian. Konstituzioak oinarritzen omen duen erakuntza, indartsua da aparatu gisa, elkartasun gogo edo komunitate baten adierazpen gisa fikzio hutsa da, EHan bederen. «Biolentzia ezarri» heredatua da instituzioen fundamendua. Konstituzioak hartu-emanak arautzen ditu (zuzenbide mailan), Francoren garaian bezalaxe; baina ez bildu, banatu egiten gaitu. Horregatik moralaren eske larria: gure komunitasunak zimenduren bat behar duelako. Haatik, nola ordezkatu moralak, ez dagoen Itun sozial bat? (Metafora gisa ere ez dagoena?). Oinarri hori ez dago. Eta, inposizio fisiko eta moral guztien arren, ez dagoena ez dagoela, horixe da biolentziak behin eta berrir ebidentzia gorrian jartzen duena. Estatua egoteko, gizartearen egoera du. Elkartasun borondaterik ez badago, ez dago gizarterik. Gehienez ere inposizioa dago. Azken finean hori da hemen problema: politikak izan behar diren bere fundamenduak (indarrak ezartzen dituenak batik batik); bere hautu libre moralak bakarrik fundamendu lezakeen gizarteak, ez du oinarririk.

Gizarte (post)modernoan, gizartearen oinarri falta hori ez du «biolentziak» bakarrik ebidentzian jartzen. Kapitalismoa, ez da iritsiko *homo homini lupus* izatera, baina esentzialki insozaldarioa da. Lehia eta mozkin bezalako balio dudagarrietan ditu bere justifikazio behinena. Apenas da kohesioa oinarritzeko sistema bat (menpetasunak dakarren kohesioa ez bada). Alderantziz, atzo familiaren, herriaren loturak desegin zituen bezala, gaur Estatuaren, kontinenteen, kulturen mugak

eraisten ditu. Kapitalak ez du inolako loturarik ezagutzen. Eta globalizazioak elkartasunaren disoluzio globala esan gura du. Erlijioen eta kulturen disoluzioa. Moralaren disoluzioa.

Lehen horri Progreso zeritzon. Progresoak merkatuak zabaldu zituen. Ilustrazioak, erlijiosoa kendu eta, fundamenduzko zuzenbide bat eman zion elkarbizitzari: Itun soziala. Ordea, komunismoak azkenean porrot egin arren, Itun sozialaren metafora ilustratua betiko birrindurik geratu da XIX eta XX. mendeko klase borroketan. Globalizazioaren fasean, erlikia kultural bat baizik ez da haren oroipea. erlijioa bizitza publikotik baztertuta dago, gizarte post-erlijioso eta post-razionalista bizi gara. Lehen erlijioak edo razionalismoak ematen zituen gauza batzuk, autoritatearen eta ordenaren legitimazio batzuk adibidez, edo ziurtasun moral batzuk, orain ezker ez dituen ematen. Eta hori da *krisi* famatuaren funtsa, arrazoimen ilustratua krisian jausiz gero. Edo erlijioa itzuli, edo erlijioak ematen zituen gauzekin gabe bizitzen ikasi, ez dago besterik. Baina hark ez du jendea gehiegi erakartzen, eta honek oso zaila ematen du... Beraz, gizakia animalia sozial ipuin eta mitozalea baita, komunitate sentimentua biltzeko, ez dagoena (moralak), proklamatu egiten da, beti bezala, ipuin batean. Eta erlijioa izan gabe aski erlijiosoa dirudien, razionala izan gabe itxura razionala duen gauza bat asmatzen da, moralak deitzen zaiona, ezin moral konkretu ez dena, eta horrekin salbatu nahi dugu.

Ez da hemengoa bakarrik. Gerra

Hotzaren ostean diskurtso politikoa nola moralizatu den, berehala ohartu dute Ingalaterran soziologoek. Dexente lehenago Max Weber-ek salatua zuen Alemaniako politikan «etika, arrazoiak

edukitzeko tresna gisa baliatzeko mania klerikala». (Horrexen aurka asmatu du, hain zuzen, konbentzimentu edo etikak pertsonal eta erantzukizuneko etika politikoa bereziki erabiltzeko modan jarri zuena). Azken urteotan «diskurtso moralak» globalizazio fasearen karakteristikotzat jotzen du autore iparramerikar zenbaitek.

Globalizazio faseko Inperioaren autokontzientzia espresatzen bide duen diskurtso moral horrek, edozein ekintza «demokratiko» zuzitzen du. Orain ezker nahiz bonbak, humanitarioak dira denak. *La Legión Española* bera Kosovon, solidaritate sinbolo bat bihurtzen da albiste-garra. Humanitario eta liberala ez den ezer ez da egiten ja. Errealitate dramatikoenak, hizkera positiboenak ezaltzen dira: atzo «subdesarrollados» ziren herrialdeak, «países en vías de desarrollo» bilakatu dira. Eta burutzen da R. Sánchez Ferlosio: langabekoei «trabajadores en vísperas de empleo» esan beharko zaie, eta Hirugarren Munduan goseak akabatzen dauden lurraldeei «países en vísperas de comer».

Garai batean mintza zitekeen, inperialismo portugalesaren alde Camões-ek egiten zuen eran: Erromak egin zuena, guk ere ahal dugu. Edo Espainiaren ohoreak, Frantziaren handitasunak, gerra hau justifikatzen du. Gaur ez dago horrela hitz egiterik. Artemein «Bes-

tea» —kanpoan— naziak ziren; «gu» (barruan) demokratik ginen. Gero, Bestea komunista ziren, gu liberalak. Biak garaituak, zer gara «gu»? Non dago Gaiztoa? Ripaldak aipatzen duen G. Debord-en esaldi baten arabera: «*Esta democracia tan perfecta fabrica ella misma su inconcebible enemigo: el terrorismo. En efecto, quiere ser juzgada por sus enemigos antes que por sus re-sultados*». Gaur ordenak *terroristen* aurka definitzen du bere burua eta espazioa, berdin USAn hala Errusian (txetxeniarrek terroristak dira) nola Euntzan. Gizarte globalean kanporik ja ez baitago, demokraziak bere «barruko terroristen» asmatu du bere Bestea (gaixoa, Itoizko ekologista bat izan daiteke!). Eta gu, beti onak, «moralak» gara orain: toleranteak, kontsentsukoak, etab., horixe ez omen diren terroristek mehatxatuak. (Horiek fundamentalistak, intoleranteak, etc. dira). Diskurtso hau Espainia postfrankistan premiarik larrienekoa da, identitate berri «demokratiko» eta «europar» (berdin, moderno) bat arin baino arinago asmatu behar haren beharrez, eta Alderdi eta hedabide guztiak lanean patriotikoki kolaboratzen estresaturik dabilta...

Negatiboa? Sakoneko historia guztia (Frantziako, Espainiako iragan eta orainaldi bortxatiak) ahazt/ezkutatu, egungo status gu axala beste gabe zuzitzea; Barne Ministroak, poliziak, armadak eta bonbak, denak on-onak bihurtzea, ondorio «kolateral» barkagarri batzuekin...

Beharbada positiboa (anbiguitate artean plisti-plasta aitzinatzen da gizontzoa historian): kontzientzia publikoaren maila berri bat, agian existenteagoa (%0,7, Pinochet, abereen eskubideak... Baina Donostian zezen-plaza berria egun beretan!). Hala lortu ziren behiala tolerantzia, prentsa libre, giza eskubideak. Beraz, espe-rantzari leio bat. Kontzientzia sozia-leren konkistak izan dira historian konkista moral guztiak.



*Lehen erlijioak edo razionalismoak ematen zituen autoritatearen eta ordenaren legitimazio batzuk, edo ziurtasun moral batzuk, orain ezker ez dituen ematen*

## ...nemeroteka

EL MUNDO DEL PAÍS VASCO

### Putak

[HASIER ETXEBERRIA]


(...)Gaurko hiriak, gurean hiririk bada behintzat, gehiago dirudite postaletako dekoratu beste ezer baino. Balneario bokazioa dute, batez ere. Eta balneario izateko gerra horretan, Bilbon eta Donostian ekipamendu hitza bilakatu zaigu, ohizko, kongresu

hitza eguneroko eta azpiegitura turistikoa, negozioaren sinonimo. Azken finean, gure bi hiri hauek beti eduki izan duten egiazko intentzioa gauzatu dute: probintziako aberastasunaren gastaleku bilakatu dira.

(...)Ez da oso ohizko nire biografian, baina aste honetan goi mailako politikari batekin egokitu zait bazkal-tzea. Emakumea bera, harri eta lur utzi ninduen honako hau bota zuenean deblauki:

«Donostiak ez dauka kongresuetarako gaitasunik, putak falta dira, ez dago aski putarik eta putetxerik, ez dago lumpenik eta kongresuetara etortzen diren gizonetakoak, aspertu egiten dira hainbeste edertasun eta pintxo gozorekin».

(...)Bilbok beti izanen du Donostiak sekula eduki ez duen beltasun bat. Beti izanen da hiriago eta edukiko dituberekin hiriarren ajeak, txarrerako eta onerako (...)



SCHRANK / THE INDEPENDENT